

**OHIKO BATZAR NAGUSIAREN
ONARPENERA JARRI BEHARREKO
ERABAKI-PROPOSAMENAK
(2023ko maiatzaren 25a)**

1. EROSKI KOOP.E.KO OHIKO BATZAR NAGUSIA ETA EZOHIKO BATZAR NAGUSIA ERATZEA

Lehenengo puntu honetan, eta legezko betebeharra den neurrian, batzarraren deialdia iragartzeko eta jendaurrean jartzeko formalitateak bete direla egiaztatuko du Batzarreko Lehendakariak. Era berean, Batzarrean bozkatuko diren erabakiei buruzko dokumentazio osoa bazkide guztien esku, eta zehazki, delegatuen esku jarri dela ere egiaztatuko da.

Lehenengo puntu honetan, ez da beharrezkoa inongo erabakirik hartzea.

2. BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO HIRU BAZKIDE IZENDATZEA.

Urtero bezala, Batzarraren gai-zerrendaren lehenengo puntua legez eta estatutuz ezarritako betebeharrak betetzera bideratua dago; hau da, hiru bazkide izendatzea Batzar honetako Akta sina dezaten, Lehendakaritzarekin eta Idazkaritzarekin batera, legean jasotzen den eduki osoa eta erabakiak hartzeko modua betetzen dituela egiaztatuz.

Ezer erabaki baino lehen, ohikoa den bezala, aurreko Batzar Nagusiaren Akta onarpenaren berri ematen da; kasu honetan, 2022ko maiatzaren 26an egindako Delegatuen Batzarrarena, hain zuzen ere. Akta hori legez eta estatutuz ezarritako betebeharrak betez egin eta onartu zen.

Ekitaldi honen Aktarekin ere berdintsu egin ahal izateko, batzarrean dauden hiru pertsona hautatzea proposatuko da, Batzar honen akta Lehendakaritzarekin eta Idazkaritzarekin batera sina dezaten. Hau izango da

ERABAKIA:

Bakarra. - "Estatutu Sozialen 52. artikuluan 9. apartatuan ezarritakoaren arabera, bilera honetan dauden __ (3) __ izendatzen dira, Batzar honen Akta onartu eta sinatu dezaten, Lehendakariarekin batera".

3. 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION SOZIETATEAREN URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTENA, ETA, HALA BADAGOKIO, KONTU ETA KUDEAKETA-TXOSTEN BATERATUAK AZTERTZEA ETA, BIDEZKOA BADA, ONARTZEA

Gai-zerrendako puntu honetan, eta Batzar Nagusiak bere iritzia eman aurretik, Kontseilu Errektoreak 2022ko ekitaldiko bere kudeaketaren gertaerarik garrantzitsuenak aurkeztuko ditu.

Era berean, Kontseilu Errektoreak 2023ko apirilaren 28an Kontseilu Errektoreak formulatutako Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena, bai indibidualak bai bateratuak, aurkezten ditu onartzeko, KPMG auditoria-enpresak behar bezala auditatutakoak.

Honako hauek proposatuko dira:

ERABAKIAK:

1) "Eroski Koop.E.ren Urteko Kontuak onartzea, eta baita 2023ko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldiko Kudeaketa Txostena ere, Sozietateko kontu-auditoreek egiaztatua".

2) "Eroski Koop.E.ren Urteko Kontu bateratuak onartzea, eta baita 2023ko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldiko Kudeaketa Txostena ere, Sozietateko kontu-auditoreek egiaztatua".

4. 2022KO EZ-FINANTZAZKO INFORMAZIOARI BURUZKO TXOSTENA AZTERTZEA ETA, BIDEZKOA BADA, ONARTZEA

Kontseilu Errektoreak, Ez-finantzazko Informazioaren egoerari buruzko txostenari buruzko erabakiari dagokionez, Gai-zerrendako aparteko puntu gisa aurkeztu du Ez-finantzazko Informazioari buruzko Txostena, abenduaren 28ko 11/2018 Legean (Merkataritza Kodea aldatzen duena) ezarritakoarekin bat etorritik, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onesten duena, eta uztailaren 20ko 22/2015 Legea, Kontu Auditoretzarena, jakinaraziz BUREAU VERITASek egiaztatu duela, ondore horietarako, egiaztapen-zerbitzuko emaile independente gisa.

Beraz, hauek dira proposatuko diren

ERABAKIAK:

Bakarra.- "2022ko ekitaldiari dagokion Ez-finantzazko Informazio Egoerari buruzko Txostena onartzea".

5. 2022KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA

Gai-zerrendako puntu honetan, 2022ko ekitaldian lortutako emaitzak banatzeko proposamena egiten da. Emaitzak positiboak eta 32.065.203,39 eurokoak dira, eta aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko proposatu dira. Aurretik, soberakin garbia zehaztu aurretik, funts propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpenek zor dituzten interesak kendu dira, 2.814.885,47 euroko zenbatekoarekin. Ordainketa hori 2022ko Batzar Nagusian erabaki zen (orain gauden 2023ko ekitaldiari dagokiona ere bertan onartu zen), eta 2023ko urtarrilean egin zen ordainketa.

ERABAKIA:

1) "Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera, 2022ko ekitaldiko emaitza positiboan banaketa onartzea -emaitza horien zenbatekoa 32.065.203,39 euroko zenbatekoa da-, honela:

SOBERAKIN GORDINAK:

2023ko urtarrilean ordaindu ziren funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak ordaintzea.

2.814.885,47 €

SOBERAKIN GARBIAK

Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak
konpentsatzea

29.250.317,92 €

6. 2023KO EKITALDIKO AUDITOREAK IZENDATZEA

KPMG beste urtebeterako berritzea proposatzen da, kontu indibidualentzat eta bateratuentzat. Erabakia Auditoria eta Betetze Batzordeak (Kontseilu Errektorearen organo delegatuak) proposatuta egiten da, haren legezko eta estatutueta betebeharrak betez. Beraz, hauek dira proposatuko diren

ERABAKIAK:

1) "Eroski Koop.E.ko Kontu indibidualen Auditore gisa KPMG Auditores SL auditoria-sozietatearen (Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean S0702 inskripzio-zenbakia duenaren) izendapena luzatzea, 2024ko urtarrilaren 31n amaituko den ekitaldiko Sozietatearen Urteko Kontu indibidualen auditoria egin dezan".

2) "Eroski Koop.E.ko Urteko Kontu bateratuen Auditore gisa KPMG Auditores SL auditoria-sozietatearen (Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean S0702 inskripzio-zenbakia duenaren) izendapena luzatzea, 2024ko urtarrilaren 31n amaituko den ekitaldiko Sozietatearen Urteko Kontu bateratuen auditoria egin dezan".

3) "Kontseilu Errektoreko Lehendakariari ahalmena ematea Auditoria Erakunde horrekin egin beharreko kontratazioa egin dezan, berari komenigarrien iruditzen zaizkion baldintzetan".

7. 2024, 2025 ETA 2026KO EKITALDIETAKO AUDITOREAK IZENDATZEA

Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea eta Europako Parlamentuaren apirilaren 16ko 537/2014 (EB) Erregelamendua (Interes publikoko erakundeen legezko auditoriarako berariazko eskakizunei buruzkoa) aplikatuz, nahitaezkoa da auditoria-enpresaren txandaketa aplikatzea. Beraz, KPMG enpresak ezingo du sozietatearen kontuak ikuskatzen jarraitu.

Horregatik, konpainiak lizitazio-prozesu bat egin du, kanpoko auditorea izendatzeko bere politikarekin eta horretarako indarrean dauden arauen arabera. Auditoria eta Betetze Batzordeak gainbegiratu du prozesua.

Hainbat hilabete iraun duen lizitazio-prozesuaren ondoren, PwC enpresa hautatu da.

2024ko ekitalditik aurrerako izendapenak irteerako eta sarrerako enpresen trantsizio egokia egin nahi du datozen hilabeteetan.

Beraz, erabaki hauek proposatuko dira:

ERABAKIAK:

1) "Eroski Koop.E.ko Kontu indibidualen Auditore gisa PricewaterhouseCoopers Auditores S.L., auditoria-sozietatea (Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialeko inskripzio-zenbakia: S0242) izendatzea 2025eko, 2026ko eta 2027ko urtarrilaren 31n amaituko diren ekitaldietako Sozietatearen Urteko Kontu indibidualen auditoria egin dezan".

2) "Eroski Koop.E.ko Urteko Kontu bateratuen Auditore gisa PricewaterhouseCoopers Auditores S.L., auditoria-sozietatea (Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialeko inskripzio-zenbakia: S0242) izendatzea 2025eko, 2026ko eta 2027ko urtarrilaren 31n amaituko diren ekitaldietako Sozietatearen Urteko Kontu bateratuen auditoria egin dezan".

3) "Kontseilu Errektoreko Lehendakariari ahalmena ematea Auditoria Erakunde horrekin egin beharreko kontratazioa egin dezan, berari komenigarrien iruditzen zaizkion baldintzetan".

8. ESTATUTU-, LEGE- ETA ANTOLAMENDU-XEDAPENAK

7.1. Ekarpenei buruzko erabakiak.

- a) Baja eman duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabili beharreko gehieneko zenbatekoa zehaztea eta horiek itzultzeko erabakia hartzea.**

Estatutu Sozialen 23. artikulua eskumena ematen dio Batzar Nagusiari urtero zehazteko zein den kapitalerako ekarpenen gehieneko zenbatekoa; hau da, Kontseilu Errektoreak 2023ko apirilaren 21a baino lehen baja eman dien bazkideei itzuli beharrekoa, haien ekarpenak itzultzeko erabakiaren zain badaude.

Kooperatiba saiatuko da, ahal den neurrian, konpainiaren ohiko martxan normalean jasotzen diren eskaerei erantzuten, eta hori kooperatibaren kaudimena eta etorkizuna zainduz egin ahal izateko, beharrezkotzat jotzen da gutxieneko kaudimen- eta likidezia-zenbateko bat mantentzea helburu duten irizpideak eta neurriak hartzea, baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzeak kooperatibak xurgatzeko duen gaitasuna gainditu ez dezan.

Beraz, ekarpenak itzultzeraz bideratutako zenbatekoa Kontseilu Errektoreak zehaztutako kaudimen-atalasea eta likidezia-atalasea kontuan hartuta ezartzen da.

Era berean, Batzar Nagusiak kooperatiban baja hartu duten bazkideei egindako ekarpenak itzultzea erabaki ahal izango du.

Kontseilu Errektoreak, aurkeztutako eskaerak eta itzultzeko erabakitzeko dauden kapitalak oinarri hartuta, eta Estatutu Sozialetan aipatutako eta ezarritako atalaseen azterketa kontuan hartuta, hauek proposatzen dizkio Batzar Nagusiari:

ERABAKIAK:

- 1) "2022ko maiatzaren 26an egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreak 2023ko maiatzaren 18ra arte adostu dituenak itzultzeko erabiliko den gehieneko zenbatekoa 8.000.000 (zortzi milioi) €-tan finkatzea".
- 2) "2022ko maiatzaren 26an egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideei eta Kontseilu Errektoreak 2023ko maiatzaren 18ra arte adostu dituenek egindako ekarpenak itzultzea erabakitzea, Eroski Koop.E-ren Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, 8.000.000 euroko zenbatekora arte guztira".
- 3) "2022ko maiatzaren 26an egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreak 2023ko maiatzaren 18ra arte adostu dituenak itzultzea ez erabakitzea, aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoaren gainerako zenbatekoan eta itzulketa-eskaeren zenbateko osora iritsi arte, Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

b) Sozietateak Mendeko Finantza Ekarpenak Autokartera-erregimenean eskuratzeko baimena

Eroskik Finantza Ekarpenak jaulki zituen, eta 2002 eta 2007 bitartean merkaturatu ziren. Ekarpene horien jaulkipenari buruzko erabakietan, Eroskik konpromisoa hartu zuen merkaturatzearen likidezia-maila jakin bati eusteko kapitalaren % 10aren baliokidea den zenbatekora iritsi arte titulua eskuratzeko, existitzen diren tituluen trafikoa eskaintza eta eskari nahikoa sustatzeko xedearekin.

Konpromiso hori betetzen jarraitzeko, beharrezkoa da Batzar Nagusiak Ekarpene horiek eskuratzeko (nola zuzenenean hala sozietate filialetako baten bidez) Kontseilu Errektorearengan egindako delegazioa berritzea.

Hala, eta helburu horrekin, egokitzat jotzen da baimen hori berritzea, eta, beraz, honako hau proposatuko da:

ERABAKIA:

Bakarra. - "Kontseilu Errektoreari baimena ematea 2002, 2003, 2004 eta 2007ko Jaulkipenetako Mendeko Finantza Ekarpenak (MFEak) zuzenean edo bere taldeko edo lotetsitako beste edozein sozietateren bidez eskuratu eta zorroan mantendu ahal izan ditzan, gehienez Sozietatearen kapitalaren % 10eko zenbatekoan (ondore horietarako MFEen jaulkipen guztien zenbatekoa barnean hartzen da), egokitzat jotzen diren termino eta baldintzetan, eta indarrean dagoen legeriak ezarritako bermeekin. Sozietateak erosten dituen MFEen erosketako prezioa ezingo da izan MFEek merkaturatu izan duten azken kotizazio-prezioa baino, edota, bestela, edozein likidezia-erakunde argitaratzen duen kotizazio-prezioa baino % 50 txikiagoa eta ez handiagoa. Salbuespen modura, sozietateak likidezia-erakundeekin egindako edo egin beharreko edozein kontratuen erosketa-prezioa, likidezia-erakunde horiekin egindako

kontratuetan edo egingo diren kontratuetan erabakitzen den erosketa-prezioaren berdina izango da. Sozietateari MFEak erosteko ematen zaion baimen honek 18 hilabeteko gehieneko epea izango du”.

c) Lan-bazkide berrien Nahitaezko Ekarpinak eguneratzea

Estatutu Sozialen 36.7 artikulua bazkide berrien nahitaezko ekarpinak Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera eguneratzeko aukera aurreikusten du. Eta, bestalde, Euskadiko Kooperatiben Legearen 61.4 artikulua xedatzen du Batzar Nagusiak urtero finkatu beharko duela nahitaezko ekarpen horien zenbatekoa.

Hortaz, 2023ko uztailaren 1etik aurrera sartuko diren bazkide berriek Sarrerako Kuota eta Nahitaezko Kapital gisa jarri beharko dituzten zenbatekoak ezarri behar dira. Aurten, iazko zenbatekoak % 3,1 eguneratu behar dira.

Beraz, hau da proposatuko den

ERABAKIA:

Bakarra. - "Lan-bazkideen Ekarpinak eguneratzea, Sarrerako Kuota gisa 2.399,48 euroko kopurua eta Kapital Sozialerako Nahitaezko Ekarpin gisa 9.597,90 euroko kopurua ezarriz, eta, beraz, 2023ko uztailaren 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko Nahitaezko Ekarpin Totala 11.997,37 eurokoa izango da.

7.2. Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpinak ordaintzea.

Estatutu Sozialen 39 bis artikuluan ezarritakoa betez, urtero erabaki behar da ea Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpinek ordainsaria sortzen duten ala ez. Kontabilitateko Nazioarteko Arauak indarrean sartu zirenetik sortutako betebeharrak bat da erabaki hau, Mendeko Finantza Ekarpinak Funts propiotzat hartzeko.

2022ko Batzar Nagusian jada onartu zen 2023ko ekitaldiari dagozkion MFEen ordainketa. 2024ko urtarrilaren 31n amaituko da, eta abonua egun horretan egin behar da.

Aurten, 2024ko ekitaldiari dagokion ordainketa erabakitzea proposatzen da. 2024ko ekitaldia 2025eko urtarrilaren 31n amaituko da, eta data hori da ordainketa egin beharreko eguna. Hori guztia zirkulazioan dauden MFEen jaulkipena arautzen duten baldintzetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Ondorioz, hau da proposatzen den

ERABAKIA:

Bakarra. - "2007an jaulki ziren eta Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpinen 2024ko ekitaldiari dagokion ordainketa

onartzea. Ordainketa horren interes nominala eta zenbateko gordina jaulkipen-baldintzetan ezarritakoaren arabera kalkulatu beharko dira, eta 2025eko urtarrilaren 31n abonatuko da”.

9. ERREKURTSO-BATZORDEA BERRITZEA

Bazkideei arau-hauste larri edo oso larriengatik irekitako diziplina-espedienteetan ezarritako zigorren kontrako errekurtsuak ebazten dituen kooperatibako organoa da Errekurtsu Batzordea, barne-bidea agortzen duena.

Bertako kide titularrak eta ordezkioak Batzar Nagusian hautatzen dira, bozketa sekretu bidez. Eskubide osoko bazkide izan beharko dute, eta Estatutu Sozialetan ezarritako eskakizunak (antzinatasuna, kooperatibako esperientzia eta egokitasuna) bete beharko dituzte; gainera, beharrezkoa izango da hautagaiek bestelako kargu sozialik ez izatea.

Lan-bazkideen hiru ordezkari eta bazkide kontsumitzaileen bi ordezkari osatzen duten organo hau erdika berritu behar da urtero. Kasu honetan, bi hautagai izendatu behar dira; bat lan-bazkideen artean, eta bat bazkide kontsumitzaileen artean, Batzarra egingo den lokalera sartu aurretik egingo den bozketa sekretu bidez. Azkenik, emandako botoen kontaketa egin ostean, hau da proposatuko dena:

ERABAKIA: “Egindako bozketaren ondorioz, Errekurtsu Batzorderako izendatu dira, estatutuetan ezarritako gehieneko bi urteko eperako”

<i>Kontsumo-bazkideak</i>	<i>Lan-bazkideak</i>
<i>Titularra</i>	<i>Titularra</i>
<i>Ordezkoa</i>	<i>Ordezkoa</i>

10. JAGOLETZA-BATZORDEA BERRITZEA

Jagoletza Batzordea organo gainbegirale eta fiskalizatzailea da, Kooperatibako organo sozialek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzen duena. Euskadiko Kooperatiben Legeak behar diren ahalmen guztiak esleitzen dizkio organo honi, bere funtzioak behar bezala bete ditzan, baina kooperatibak hirugarrenen aurrean duen kudeaketan edo ordezkartzan inoiz kalterik eragin gabe. Administrazio-organoren edo bertako kideren

baten kontra egindako aurkaratze judizialak edo kide horien kontratuen amaiera izango dira salbuespenak.

Organo honek kooperatibaren bizitza soziala zuzena eta gardena dela bermatzen die bazkideei, eta beste organo batzuetako hautagaien kasuan bezala, bertako kide izateko hautagaien egokitasun-profila egiaztatzen da, izango dituzten erantzukizunen arabera; eta, kasu honetan ere, ezinbestekoa da hautagai horiek bestelako kargu sozialik ez izatea. Organoa osatzen duten hiru kideetatik bi bazkide kontsumitzaileen komunitatekoak dira eta bestea lan-bazkideen komunitatekoa.

Bi urtez behin Jagoletza Batzordeko kide guztiak berritzea dagokigu. Bazkide kontsumitzaileen artetik bi hautagai izendatu behar dira, eta lan-bazkideen artetik bat. Bozketa sekretua Batzarra egingo den lokalera sartu baino lehen egingo da. Azkenik, emandako botoen kontaketa egin ostean, hau da proposatuko den

ERABAKIA:

"Izandako hauteskunde-emaitzaren ondorioz, bazkide hauek izendatu dira Jagoletza Batzordeko, estatutuetan ezarritako gehieneko bi urteko operako":

Bazkide kontsumitzaileak	Lan-bazkideak
<i>Titularra</i>	<i>Titularra</i>
<i>Ordezkoa</i>	<i>Ordezkoa</i>

11.KONTSEILU SOZIALA BERRITZEA

Kontseilu Sozialaren –soilik lan-bazkideek osatzen duten organoaren– erdia berritu behar da aurten. Gogoratu Kontseilu Sozialaren funtzioen artean dagoela laneko alderdi guztiei buruz Kontseilu Errektorea informatzea, aholkatzea eta kontsultatzea, eta kasu bakoitzean jarrera arrazoitu bat hartu behar duela.

Hauteskunde-prozesua ohikoa izan da; alegia, bi itzuliko bozketa egin da lan-bazkide guztien artean. Prozesu bikoitz hori amaitutakoan, egindako bozketen arabera ordenatzen ditu hautagaiak Kontseilu Errektoreak, eta Batzarrari zerrenda bakarra proposatzen dio. Emaitzen arabera, boto gehien jaso duten hautagaiak titular gisa agertuko dira zerrenda horretan, eta hurrengoak ordezko gisa. Horrela, Batzar Nagusia izango da erabakia berretsiko duena, hautaketa-prozesuari behin betiko balioa emanez.

Horrenbestez, eta Euskadiko Kooperatiben Legeak ezartzen duen bezala, lan-bazkideek Kontseilu Soziala berritzeko egindako bozketetatik ateratako hautagai-zerrenden eta ordezkoen hauteskunde-emaitza berresteko aurkezten du Kontseilu Errektoreak, hautagaitza bakoitzak jasotako boto-kopuruaren arabera ordenatuta:

Zonak	TITULARRA		ORDEZKOA	
	IZENA	ZENTROA	IZENA	ZENTROA
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				

12. KONTSEILU ERREKTOREARENGAN AHALMENAK DELEGATZEA

Gai-zerrendako puntu honetan, eta lege- eta estatutu-betebeharrak hobeto betetzeko, Batzar Nagusiak Kontseilu Errektorean dituen ahalmenak eskuordetzeko ohiko akordio bat proposatzen da; horrela, edozein kidek eskritura publikoa egiletsi ahal izango du, Batzar honek hartutako edozein erabaki jasotzen duena, eta interesa duen agintari, administrazio eta erregistro guztien aurrean egiaztatu ahal izango da.

Beraz, hau da proposatuko den

ERABAKIA:

"Kontseilu Errektoreko kide bakoitzari eta Letradu Aholkulariari eskuordetzea horietako edozeinek -batak zein besteak- egoki edo beharrezko diren garapen- edo betearazpen-jarduketak edo -kudeaketak erabaki eta egin ahal izan ditzan Batzar Nagusiak hartutako erabakiak ahalik eta osoen gauzatzeko, barnean dela kasuan kasuko kontratuak eta dokumentuak sinatzea, egokitzen jotzen dituzten klausula eta baldintzekin, bai eta erabaki horiek interpretatu, zuzendu eta osatzeko ere, eta eurek aukeratutako notarioaren aurrean agertu eta jendaurrean jartzeko, horretarako dagozkion eskritura publikoak egiletsiz, baita akatsak konpontzeko, argitzeko edo zuzentzeko ere; erabakiak erabat eraginkorrak izateko beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduketa guztiak egitekoa, horretarako legearen arabera eskatu daitezkeen dokumentu guztiak erantsiz. Halaber, dagokion Erregistroetan gordailutzea eta/edo inskribatzea lortzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egiteko ahalmena eskuordetzea -inskripzio partziala eskatzeko ahalmena barne- Erregistro horiek edo beste edozein erakunde edo agintek emandako hitzezko edo idatzizko kalifikazioak ikusita".

13. NORBERAK LEKARKEENA
